

c. 1911

Eluntzetakoak



Ezkerretik eskumara eta atzetik aurrera: M^a Josefa Leniz Goikoetxea (*Txantonen emaztea*), Emeteria Azumendi (*Txantonen ama*), Antonio Arrillaga Azumendi (*Txanton*), Florencio Arrillaga Leniz (*Txantonen semea*), Gabriela Arrillaga Leniz (*Txantonen alaba*), Martina Arrillaga Leniz (*Txantonen alaba*), mutikoa (*Txantonen iloba*)



Antonio Arrillaga Azumendi,
Florencio Arrillaga Leniz eta
Emeteria Azumendi

Tranpa txiki bat egin behar dugu. Gure eskuetara argazki eder hauek heldu zirenean bagenekien teknikoki Eluntzeta baserria Ispasterren zegoela baina Lekeitiotik hain hurre eta Ispastertik hain aparte egonik, tentazioan jausi ginen.

Eluntzeta 1740. hamarkadan eraiki zuten Joseph Galdona eta haren emazte zen M^a San Juan Ormaetxeak. 1745eko erroldan *Eluzeta* baserria Ispasterko sutean juxtu-juxtuan agertu zen eraiki berria baitzen (nueba). 1796ko sutean Miguel Vicente Ezpeletarena zen, Catalina Galdonaren senarra zelako. Ezpeletatarren eskuetan jarraitu zuen Etxezabaletarren eskuetara heldu arte. Madrazotarra zen antza, argazki hau egin zenean. Edonola ere, baserria ez da protagonista, hango errentariak baino.

Arrillaga Leniz familia da agertzen dena XX. mende hasierako argazki hauetan.

Antonio Arrillaga (Txanton) markinarra zen eta Maria Josefa Leniz emaztea mendexarra. 1900ean ezkondu ziren Mendexan eta hiru seme-alaba izan zituzten: Florencio, Martina eta Gabriela. Antonioren ama Emeteria Azumendi ere argazkietan ageri da, eta mutikorik txikiena Antonioren iloba bat zela esan digu Mari Tere Arrillagak, Florencioren alabak. Asko eskertzen dizkiogu argazkiak eta baita informazioa ere.



M^a Josefa Leniz Goikoetxea, Florencio Arrillaga Leniz,
Antonio Arrillaga Azumendi eta Emeteria Azumendi